

Lana, zergak, langabezia, aurrezkiak, inflazioa, interes tasak, enpresa publikoa, enpresa pribatua, eta ... ustelkeria

Gauza asko, baina hitzaldi batean hori guztia eta gehiago ukitu du Warren Mosler-ek Bulgarian¹, 2013ko azaroaren 9an, gainera modu oso erraz batean.

Mahai ingurua Bulgarian²: Moneta nazional askeko teoria (aurkezpena³, galdera erantzunak⁴ eta transkribaketak⁵).

(Italian ere, 2013ko ekainean, antzeko hitzaldia eman zuen Mosler-ek⁶.)

Ikus dezagun...

(Hitzaldia argitzearren, puntu batzuk aipatuko ditut eta, ondoren, Mosler-ek emandako adierazpenak.)

Puntua: Steve Hanke⁷ eta *konbertsio taula*⁸

W. Molser:

Hanke ados zegoen konbertsio taula *ustiapen kolonialaren lanabesa* zela, barneko ekonomiatik BPG-ren %5 kentzen zuela finantza aktiboak finantzatzeko, ondorioz langabezia tasa handiak ekartzen zituelarik⁹.

Puntua: *Enplegua*

W. Molser:

Atzerritar inbertsio zuzena enpleguaren funtzioa da. Barneko enplegu maila altuena daukaten herrialdeek atzerritar inbertsio maila handienak lortzen dituzte. 1999an *AEBetan, langabezia %4 edo*

¹ Bulgariako moneta *Lev* da (http://en.wikipedia.org/wiki/Bulgarian_lev).

Oraingo egoera gogoratzeko, aurreko linkean ("With the replacement of the Deutsche Mark by the euro, *the lev's peg effectively switched to the euro, at the rate of 1.95583 leva = 1 euro, which is the Deutsche Mark's fixed exchange rate to euro. Since 1997, Bulgaria has been in a system of currency board and all Bulgarian currency in circulation has been backed 100% by the foreign exchange reserves of the Bulgarian National Bank (BNB). The rate is unlikely to change before the lev's retirement. On 25 April 2005, when Bulgaria's EU accession treaty was signed, the BNB issued a commemorative coin with the face value of 1.95583 leva. The lev was expected to be replaced by the euro on 1 January 2012, however some recent analysis says that Bulgaria will not be able to join earlier than 2015, due to the impact of the global financial crisis of 2008. However, in February 2009, The Economist suggested accelerating Bulgaria's path to the euro, or even letting it be adopted immediately.*

It is speculated that Bulgaria, as a member of the European Union, could adopt the Euro in 2015."

² Ikus <http://heteconomist.com/theory-of-free-national-currencies-mmt-round-table-in-bulgaria/>.

³ Ikus <http://bulgaria-mmt.blogspot.com.au/2013/11/9-2013.html>, Mosler-ek lehen 53 minututan.

⁴ Ikus http://bulgaria-mmt.blogspot.com.au/2013/11/blog-post_4795.html, Mosler-ek lehen 25 minututan.

⁵ Ikus <http://heteconomist.com/transcripts-of-warren-moslers-talk-and-ga-session-in-sofia-bulgaria/>.

⁶ Ikus http://www.youtube.com/watch?v=LagbZm_y15g#t=538.

⁷ Ikus http://en.wikipedia.org/wiki/Steve_Hanke. Hanke is the 'father' of the Bulgarian currency board.

⁸ *Currency board* (http://en.wikipedia.org/wiki/Currency_board): "A currency board is a monetary authority which is required to maintain a fixed exchange rate with a foreign currency."

⁹ Hona segida ingelesez: "He [Hanke] agreed to this, but he said he thought it was worth it because there would be more currency stability than there had been before the currency board. He doesn't compare it to alternative monetary operations. He compares it to the chaos before the currency board."

baxuagoa izan zenean, AEBek munduko atzerritar inbertsiorik handiena zuten eta ez genituen soldatarik baxuenak. Izatez, oso altuak ziren.

Puntua: *Banku zentralak*

W. Mosler:

Ulertzen ditut neoliberalismoaren modeloak, banku zentralako jendearekin lan egiten dut. Modeloak ez dira okerrak, [osatu gabekoak](#) baizik. Ez dago dirurik modeloan. Dirua geroago sartzan dute *numéraire* gisa, balio transakzio erlatiboak izendatzearen.

Puntua: *DTM eta moneta, zergapetzea eta langabezia*

W. Mosler:

DTM-k onartzen duena [moneta monopolio publikoa dela eta hori zergapetzearen puntuan dator](#). Hortaz, zergapetzea ekonomian sartzan denean, zergapetzea modelo neoliberal batean sartzan denean, egingo balute hori, eta ez dute egingo, hori bortxazkoa da, ez da merkatu borondatezko transakzioa. [Zergapetzeak sartzan du lehia ez-perfektua deitzen dena. Monopolioa bat da](#). Eta edozein liberalek ezagutzen duen bezala, monopolioa merkatu konpentsazioarekin tratatzen da. Hori dela eta liberalak dena askatzearen aldekoak dira. 'Libre' eta 'liberal' hitz bera da. Esango dute monopolioak, lehia ez-perfektuak, langabezia sortzen duela. Hortaz, dena ez-erregulatu behar dute, dena pribatizatu behar dute. Ez da egon behar sindikaturik. Denak merkatu librean izan behar du. [Galdu zutena da beste monopolio bat dagoela. Moneta bera monopolioa da](#). Eta [neoliberalak erakusten duten bezala, monopolista batek eskaintza murrizten duenean langabezia azaltzen da](#). Haiek 'gaitasun gehiegi' erabiltzen dute – langabezia, jendea lanik gabe.

Puntua: *3 minutuko irakaspena*

W. Mosler:

Modeloaz hitz egingo dut.

Hiru minutuko bertsioa aipatuko dut. Dena langabeziak izango da. Langabezia %3 izango balitz, ez ginateke hemen egongo. Ez litzateke inor egongo gela honetan. [Langabezia ordaindutako lanaren bila dagoen jendea da](#). Ez da jendeak nahi duen eta topatu ezin duen borondatezko lanaren bila egotea. Lana ordaindutakoa da.

Puntua: *bisita txartela*

W. Mosler:

Hauxe da nire bisita txartela. Jende guztiak lanpostua nahi du. Nik dauzkat lanpostuak. Baina ordainduko dut neure bisita txartelarekin.

Espero dut zuek, entzuleok, ez hartzea horrelako lanak, zeren ez baitute ezer balio, harik eta gauza bat gertatu arte.

[Orain guztiok langabe egingo zaituztet. Eta ordaindutako lanaren bilatzaile oso larriak egingo zaituztet, nire bisita txartelak lortzeko.](#)

Erabaki dugu gela honetatik irteteko ate soil bat dagoela. Eta ate horren atzean guardia bat dago, arma batekin. **Zuetariko inor ezin da gelatik atera ez badauka nire bisita txartel bat.**

Guztiok zaudete langabezian. Nabaritzen duzue presio hori? Nire bisita txartel bat behar duzue. **Atean dagoena zerga gizona da.** Orain guztiei lanak eskainiko dizkizuet hemen geratzeko eta gela hau garbitzarren. **Ordainduko dut txartel bat gela garbitzeko ematen duzuen ordu bakoitzeko.**

Beraz, denok geldituko zarete eta gela garbitu, baldin eta gelatik atera nahi baduzue.

Zergapetzeak paper zahar hau diru bilakatu du. Hemen dago txartelaren beste aldea, ez dago urrerik. **Ez dago atzerritar truke erreserbekiko inongo konbertsio taularik.** Baina **lan egingo duzue txartel hau eskuratzearren. Balioa dauka.**

Hortaz, **zergak funtzionatzen dute langabezia sortzeko.**

Zer dela eta egin nuen nik hori? **Gela hau garbituta nahi nuelako. Gobernua naiz eta soldaduak, polizia, irakasleak, sistema legala behar ditut.** Beraz, **zergapetzen zaituztet zuek eduki ez duzuen zerbaitetan** eta bide bat ematen dizuet dirua irabazteko zerga ordaintzarren.

Demagun gela honetan 50 pertsona daudela. Erabakitzen dut soilik 40 txartel gastatzeko, zeren Chicagoko Unibertsitatean ikasi baitut eta badakit superabit bat irabazi beharko nukeela. Hortaz, 40 txartel gastatuko ditut eta 50 jaso eta orduan superabita edukiko dut.

Zer gertatuko da?

Hamar pertsona ez dira gai izango lanpostu bat lortzeko. Zuetariko hamar langabetuak izango zarete. Ez du axola. Ez daukat inolako kezkarik guztiok zoru garbiketan goiko gradu bat daukazuen. Ez dut axolarik zer nolako egiturazko erreformak egin dituzuen. **50 zergapetzen badituzte eta soilik 40 gastatzen badituzte, langabezia egongo da. Hori monopolioa da. Ezta?**

Orain beste gauza bat gertatzen da. **Ezin dut zerga jaso dirua gastatu baino lehen.** Ez ditut lehendabizi zerga jaso eta gero bera gastatu. **Lehendabizi gastatzen dut eta gero zerga jaso.** Zaila ote hori ulertzeko. **Dirua, bisita txartelak, niregandik datoz. Neu naiz diru jaulkitzailea.**

Puntua: *aurrezte*

W. Mosler:

Goazen aurrera... Zuetariko batzuek txartel bat baino gehiago irabazi nahiko zenukete. Bat aurreztu nahiko zenukete, bat poltsikoan edukitzeko. Ekonomia errealean, jendeak aurreztu egiten du. Batzuek txartel bat etxera eramanez ahalko duzue gizonari edo andreari frogatzeko benetan ekonomia hitzaldi batean egun osoan egon zaretela. Bestela, nork sinetsiko du istorio hau?

Demagun, beraz, guztiok nahi duzuela txartela bat etxera eramateko. Orain gastatu dezaket. Lanpostuak eskaintzen ditudanean, 100 txartel gastatuko ditut. Zuetariko bakoitzak irabazi nahi du txartel bat zerga ordaintzeko eta beste bat aurrezteko etxera eramatearren.

Baldin eta 50 zergapetzen badituzte eta soilik 80 gastatu... (Matematikazko ariketa bat da...) 50 zergapetu, 80 gastatu, baina zuek 100 nahi dituzue. Zenbat pertsona egongo dira oraindik langabezian? 20.

Hemen dago azken erantzuna: baldin eta ez badut nahiko gastatu zerga kontua eta aurrezteko desioa estaltzeko, langabezia da froga, hau da, ordaindutako lanaren bila eta ezin topatu dagoen jendea, Beste hitzez esanda, langabezia beti da gobernuak zerga kontua eta aurrezteko desioa estaltzeko nahikoa gastatu ez duelako froga. Logikaz ez dago beste posibilitaterik.

Demagun 100 gastatzen ditudala eta zuek 50 ordaintzen dituzuela zergarekin, zuek beste 50 daukazue aurrezteko, ni benetako gobernu izango banintz, orduan 50 horiek maileguz hartuko nituzke eta horietan interesak ordaindu.

Badago inongo zentzurik horretan?

(Gogoratu ni jaulkitzailea naizela eta bisita txartel guztiak niregandik datozela.)

Puntua: *langabezia*

Edozein zentzurik egonik, horixe da gobernuak egiten dutena. Interes tasa teoriak hitz egin daiteke, baina ez dut egingo orain...

Baina AEBetako, Kanadako, Japoniako, Britainia Handiko gobernuak lehendabizi gastatu egiten dute eta gero atzera maileguz hartu beren diru propioa. Ez dute maileguz hartu gastatzeko. Haiek maileguz hartzen dute gastatu eta gero. Nik bisita txartelekin egin dudak bezala. Banku zentralak begirada zorrotz bat emateak horixe erakusten du. Irudipenezko bide bat erabiltzen dute hori esateko. Esaten dute ezin duzula erreserba drainatze bat egin erreserba gehituta daukazun arte. Beste era batera esateko lehendabizi gastatzen dugula eta gero maileguz hartzen dugu. Eta maileguz hartze guzti horrek jadanik aurreztuta dagoen diruari ematen dio interesak irabazteko leku bat.

Azterketa arin bat. Langabezia monopolistaren eskaintza murriztua da. Txartel guztiak niregandik datoz, ez badago faltsutze bat. Dolar guztiak AEBetako gobernutik datoz, ez badira faltsuak, zergak ordaintzeko erabil daitezkeenak. Eta zergak ordaintzeko erabil daitezkeen euroak Europako Banku Zentraletik datoz. Langabezia ordaindutako lanez ari da. Langabezia beti eta halabeharrez gobernuak gastatu zerga ordainketa eta aurrezki desioak estaltzeko nahikoa izan ez delako froga da.

Orain baldin eta nik 50 zergapetzen baditut eta baldin eta zuek 50 aurrezki nahi dituzue baina nik soilik 80 gastatzen ditut, eta 20 pertsona langabezian badaude, nola baztertzen dut langabezia?

Bi aukera ditut. Zerga jaits dezaket edo gastu handitu. Ez dago beste aukerarik, bestela esan.

Aurrezteko lege kanpo utzi dezaket, baina zer nolako zentzurik dauka horrek? Zer nahiago duzu nik zuen zerga jaitea ala zuek aurrezteko nik debekatzea? Ni zerga baxuagoaren aldekoa naiz. Beste jende batzuek, mailako gorenkoek jendea aurrezteko debekatzeko bideak proposatu dituzte.

Ohartu defizita daukadala. Zer esan nahi du horrek? Nik 100 gastatzen ditut eta soilik 50 jasotzen ditut. Arazoa ote hori? Ez. Ados. Nik ezin ditut txartel horiek bukatu.

Puntua: *inflazioa*

Zer esan inflazioaz?

Zein da txartel horren balioa? Zuek txartel hori eskuratzeko esan dizuedana da balioa. Baldin eta esan badizuet zuek lan egin behar duzuela ordu bat txartel hori lortzeko...

Hori da Missouriko Unibertsitateak bere ikasleei esan ziena. Haiek lan egin behar dute ordu bat horrelako txartel bat lortzeko. Zeren Missouriko Unibertsitatean horixe egin baitute. Ikasleei komunitate zerbitzu bat nahi dugula esan zieten, nahi dugu zuek komunitateari zerbitzu bat hornitzea. Hortaz, ikasle zerga bat dago. Seihilekotik seihilekora horrelako 20 txartel ordaindu behar dituzue ala ez dituzue zeuen graduak eskuratuko. Eta horrelako txartelak eskuratu ditzakezu komunitate zerbitzuko ordu bat eginez, lan hori egiteko autorizaturiko lekuetan.

Eta seihilekoen bukaeran ikasleek errenta nazionalako kontabilitatea ikasten dute horrelako modelotik. Zerga osoa izan liteke 2.000 *buckaroo*¹⁰, baina hemen matematika errazagoa egingo dugu...

Demagun zerga osoa 100 buckaroo-koa dela. Baina unibertsitateak gastatu litzake 110 buckaroo. Zergatik? Zeren ikasle batzuek nahi dituztela hurrengo seihilekorako buckaroo-ak aurreztu. Hortaz unibertsitateak 110 gastatzen ditu baina soilik 100 jaso. Defizita 10 da. Ikasleen aurrezkiak 10 da. [Errenta nazionalaren kontabilitateak dio gobernuaren defizitak ekonomian dauden aurrezkiak berdintzen dituela, azken pennyraio.](#)

Orain, *inflazioaz*, berriz.

Zein da buckaroo baten balioa? Badakigu zein den haiek ikerketa egin zutelako. Ezagutu zuten haren balioa. Programa hori orain dela 15 urte hasi zen. Orain dela 15 urte ikasleek beren artean buckaroo horiek trukatu ahal zituzten, buckaroo bakoitzeko 5 dolarretan.

Limusina handi batean etortzen zen ikasleren batek ez zuen nahi komunitate zerbitzua egin, hortaz eskaintzen zion erostea ikasle txiroren bati, zeinak lan egin behar baitzuen eta diru estra behar baitzuen. Kapitalismoa bere mailarik hoberenean. [Eta elkarri trukatu zuten 5 dolarretan buckaroo bakoitzeko.](#) Hori zen merkatu balio zuzena, eta ikasleentzako ikasgai bat gauzek nola funtzionatzen duten.

Gaur egunean, aurten, hondamena eta gero, limusina etortzen zen ikaslea, orain bizikletaz dator, baina beste guztiak okerrago daude. Egungo truke 15 dolarretan da buckaroo bakoitzeko. Zer gertatu da? Buckaroo-k hautsi zuen stock merkatua. Moneta tentel horrek, urrerik gabe atzean eta inongo konbertsio taularik (*currency board*) atzean, inolako eurorik atzean, [balioa handitu zuen 5 dolarretik 15 dolarrera. Inflazioa dolarretan.](#)

[Moneta hori barruan egonkorra da. Ikasle lanaren ordu bat adierazten du. Monetaren balioa beti da jaulkitzaileak trukean eskatzen duena.](#)

AEBetako gobernuak eskatzen duenari begiratzen badiozu -badakizu bere dolarretan ordaintzen duena, trukean eskatzen duena- gero eta gehiagokoa da. [Gobernuak gero eta gehiago ordaintzen du gauza bera lortzeko, urtero.](#) Ez da okerra hori egitea, baina esplikatzeko du zergatik balioa behera doan.

Baldin eta ordaintzen badizuet txartel bat ordu bakoitzeko, horrek balio litzake 10 euro lan egin nahi ez duen baten batentzat. Gela hau jendez beteta dago. Agian gela honetan 20 euro ordu bakoitzeko. Baina 10 txartel ordu bakoitzeko ordaintzea erabakitzen badut, alegia gehiago ordaintzea, orduan

¹⁰ *Buckaroo* da txartel horren izena. Buckaroo-z ikus http://www.huffingtonpost.com/warren-mosler/the-umkc-buckaroo-a-curre_b_970447.html.

balioa izan liteke 1 edo 2 euro. Esaten badizuet txartel bat ordainduko dudala aste baten lanarengatik, 500 edo 1.000 euro balio litzake. Horixe da neoliberal ikastetxeetan irakasten dena eta neoliberal haur eskoletan haurrei. [Monopolistak ezartzen du prezioa, ez merkatuak.](#)

Buckaroo-rekin helburua zen komunitate bat hornitzea. [Lehendabizi gastatu, gero zerga jaso. Beti gastatu da gehiago zergapetu baino. Aurrezkiek defizita berdintzen dute.](#) Balioak lanaren ordu bat berdintzen du.

Puntua: *interes tasa*

Unibertsitateak ez ditu buckaroo-ak atzera maileguz hartu ikasleengandik. Hori [zero interes tasako](#) politika deitzen da, Japoniak azken 20 urteetan edo gehiagotan izan duen bezala eta AEBek 5 urtetarako.

Zero interes tasak, ezta? Eta munduko monetarik sendoena. Inflaziorik ez. Suposatzen da hori ez dela funtzionatzeko bidea. Jakina, bide horrek funtzionatu du Japonian 20 urtetarako. Zer diote neoliberalak Japoniaz? Salbuespen bat dela. Eta zer esaten dute AEBz azken bost urtetarako? Beste salbuespen bat. Denak dira salbuespenak.

Teoria truke tasa finkoei eta konbertsio taulei erabiltzen zaie, ez honi, ez truke tasa flotatzaileko politikari, zeren ez baitute onartzen beren modeloa osatu gabekoa dela. Ez dute onartzen [moneta monopolioa dela eta guk prezioa jartzen dugula](#). Banku Zentraleko pertsonal goreneko kideei esplikatzeko diedanean, berehala ulertzen dute. Baina ez dute ezer esaten...

Ez dago inoiz langabezia. Inongo ikasle dago lanaren bila inoiz eta ezin topatu, buckaroo-ak irabaztearren. Mugarik gabeko lanpostuak daude buckaroo-ak ordainduz. [Merkataritza zeharo libre, irekia da. Litekeen ekonomiarik txikiena eta 'irekiena' da.](#) Mundu osoko ikasleak daude. Moneta guztiek flotatzen dute biraka. Mota askotako gauzek flotatzen dute inguruan. Langabeziarik eza. [Ezin da langabezia sortu. Zero interes tasako politika, inflaziorik ez, moneta sendoa.](#)

Puntua: *inflazioa, berriz*

W. Mosler:

Hitz egin dezagun inflazioak minutu batean.

[Monopolistak prezio ezarleak dira.](#) Jadanik ikusia dugu. Esaten dudana modua hau da: [prezio maila gobernu gastuaren funtzioa da, berak hori jakin zein ez.](#) Hego Ameriketako inflazio handi guztiek zuzenki [indexazioari](#) jarraitu diote. [Indexazioa da gobernuak urtero gero eta gehiago ordaitzen duenean gauza berberagatik.](#) Azaltzen da inflazio gisa.

[Inflazio horren aurka erabiltzen den politikak, interes tasa altuak eta langabezia politikak, erabat galtzen du puntua eta maiz hondamendian bukatzen da arrazoi horrengatik.](#) Hiperinflazio guztiak zergapetzearen etenaldiagatik datoz. [Zergapetzea gelditzen denean, moneta ginetik dago.](#) Jakiten duzuen kanpoan, ate kanpoan, ez dagoela inor, ez zarete hemen geldituko eta bisita txartel hori lortzeko lan egin. Espero dut.

Inflazioaren beste kausa nagusi bat gerla ordainketak dira. Alemania bortxatu izan zen urtero bere BPG-ren %50 urtean eta atzerritar trukean Lehen Mundu Gerlaren ondoren gerla erreparazioak,

ordainketak, egiteko. Noski, horrek monetari jaisteko eragiten dio, eta inflazioa edukitzeko, eta gero indexaxioa, eta politika hori bukatu zen egunean, dena gelditu zen.

Puntua: *konbertsio taula* (currency board)

W. Mosler:

Konbertsio taulako dinamika ustiapen kolonialaren erreminta da. Badago printzipio oso zahar eta oso absolutua ekonomian, hau da, ekonomia erlijioaren kontrakoa da. Ekonomian hobe da jasotzea ematea baino.

Zure aberastasun erreala gauzak pilatzean datza. Zure gauzen pilaketa hori barnean ekoitz dezakezun guztia da, jende guztia lanean ari denean, eta, hortaz, horretatik nahi duzu litekeena den beste. *Nahi duzu jende guztia lanean egotea zure output errealean, ondasunak eta zerbitzuak gehi gainontzeko munduak zuri bidaliko dizun edozer ken zuk haiei bidali beharko diezuna.* Ados? *Ekoitzen duzun guztia, munduak zuri bidaltzen dizun guztia ken zuk haiei bidali diezun guztia.* Hori guztia merkataritzako termino errealak deitzen da.

Konbertsio taularekin, gobernuak gastatzeko, moneta lokala eduki behar du, *lev* izenekoa. Nondik dator moneta hori? Baten batek joan behar du banku zentralera euroarekin, *lev* eskuratu, zerga ordaindu, dirua gastatu ahal izateko. Baldin eta paseatzen ari bazara inguruan monetarekin zure poltsikoan, nondik etorri da moneta hori? Baten batek euroa eduki behar zuen, banku zentralera joan, zure poltsikoan jarri, erretiro fondoak, korporazio-erreserbak.

Horiek dira zure finantza aktibo guztiak, aurreztuta geratzen direnak. Horiei eskaera ihesak (*demand leakages*) deitzen diegu. Ordainduta zaudenean, diruaren parte bat aurrezkietara doa. Guztiok dakigu aurrezkiak zer diren, ados? Zerbait irabazten duzu eta zerbait aurrezten duzu eta zergak ordaindu.

Puntua: *zergak eta konbertsio taula*

W. Mosler:

Zergei dagokienez hitz pare bat¹¹.

Finantza aktibo netoak hornitzeko, konbertsio taulara doazen euro horiek guztiak, nondik etorri dira?

Gauzek zuzenki funtzionatzen dutenean, esportazio netoetatik datoz. Gainontzeko munduari, Europari, gauzak saldu behar dizkiezu, euroa lortzeko, banku zentralera joateko, moneta eskuratzeko zeure poltsikoan jartzeko. Diru hori ez da eskuragarria inportazioak erosteko.

Ez badaukazu eta Europar Batasunak laguntzen badizu, maileguz hartu dezakezu. Orduan, hurrengo urtean horrenbeste interes plusa behar duzu eta zure arazoa osatzen da.

Hortaz, nola lortzen ditu herrialdeak esportazio netoak?

Zure alokairu errealak nahiko baxuak eduki behar dituzu gauza berean ahalegintzen diren beste herrialde batzuekin lehiatzeko. Imajinatu behar duzu nola bizi daitezkeen zure langileak egunero

¹¹ Ingelesez: "When I say taxes, the income tax works, but it's complicated. *It's easier to think of it like a property tax or a simple head tax.* [I]t does work for an income tax but it's a little more complicated."

kaloria gutxiagoko janariarekin, Indiarekin eta Brasilekin lehiatzeko, zeintzuek jadanik imaginatu baitute nola beren jendeak bizi daitezkeen egunero 1.200 kaloriekin.

Zergatik egiten duzu hori?

Atzerritar trukean inportazioak erosteko zure onurako? Ez, [atzerritar trukea zure moneta propioa trukatzeko zeure finantza aktibo propioak finantzatzearren lortzeko.](#)

Bisita txartelak lortu ditudanean, nondik etorri dira txartel estrak aurrezteko? Zuei eman dizkizuet. Orain, zuek haiek irabazi behar dituzue. Ordainduak izan zarete ordaindutako lanerako.

[Konbertsio taulan egongo banintz, ezin nuen hori egin.](#) Zuek guztiok [kanpora nonbaitera joan behar zenuten nahiko euroak irabazteko nire bankuan jartzeko, horrelako txartel batzuk eskuratzearren.](#)

Konbertsio taularekin, zuen aberastasun erreala hauxe da: barnean ekoizten duzuen guztia gehi inportatzen duzuen guztia (oso gutxi bilakatzen dena) gehi esportatzen duzuen guztia (zeina handia den). Zuen merkataritza termino errealak txar bihurtu dira.

[Eta barnean ekoizten duzun guztia moztu izan da, zeren langabezia handia baitago, zeren atzerritar trukeko lehiatzeko beharra baitago.](#) Horrek, erreforma izugarriak behartzen ditu, 'egiturazko erreformak' deitzen direnak. [Helburu nagusia esportazio gehiago eta inportazio gutxiago gauzatzea da, balio erreala ez daukaten finantza aktiboak lortzearren, Hong Kong bezala.](#)

Begiratu Hong Kong-i, beti esportazio netoekin dago. Aldiro deflazio izugarriak edukitzen dituzte. Noski, ez dute langabezia, zeren mundu guztia etxera bidaltzen baitute, Txinara. Eta nahiko baxua izaten denean, eta Txina nahiko txarto egoten denean, denak itzultzen dira lan egiteko. [Haien jabego balioak gora eta behera doaz, baina atzerritar trukeko erreserbatan ehunka bilioi](#) (amerikarra: 10^9 dolar) [lortu dituzte.](#) [Esportazio netoa lortu dute, beren merkataritza termino errealak jaitsiz, AEBetako Erreserba Federaleko balantza orrian zenbakietarako trukean,](#) dolarrak deitzen direnak, haien [konbertsio taulako hitzarmenak behartzen duen moduan.](#)

Galdera / erantzunak

Puntua: *nola uzten duzu [konbertsio taula](#)?*

Oso erraza da. Soilik aditzera ematen duzu eten dela. Hala ere, horrek ez du zuen ekonomia laguntzen. Ekonomiarekiko arazoa langabezia da, agian, herrialde gisa, zuen benetako ahalmenaren erdian lan egiten. Jendeak aurreztu behar du.

Beraz,

- 1) [Aurrekontu defizit handiagoa behar duzue, interes tasa politika bat behar duzue, zeina konbertsio taularekin ezinezkoa den.](#) Horrek esan nahi du [gastu handitzearen eta zerga mozketen nolabaiteko konbinapen bat,](#) politikaren esku egonez. Erabaki behar duzue zein den gobernuaren tamaina aproposa. [Era egokian sistema legala eta osasun sistema publikoa hornitu behar dituzue.](#) Tamainari dagokionez, [horiek erabaki politikoak dira.](#)
- 2) Beste guztiak sektore pribatuan enplegatuko dira. Beraz, [sektore publiko gutxiago, sektore pribatu gehiago ala bien arteko edozein ratio eduki dezakezue, zuek politikoki finkatu nahi duzuen moduan.](#) Baina sektore publikoaren kostu erreala da sektore pribatuko jendeak bera

hornitu behar duela. Sektore publikoaren onurak dira zerbitzu publikoak eta, pizgarri egokiek beren lekua edukiz, irabazitako gaitasun guztiak.

Puntua: *sektore publikoa eta sektore pribatua, lan bermea*

W. Mosler:

Aipatutako erabaki hartuta, orduan sektore publikoa hornitzen duzue. Lagundu behar duzue langabetuek sektore pribatuko lanpostuak lortzeko. **Transakzio masibo bat egongo da langabeziatik sektore pribatura.** Arrazoia hau da: behin defizita tamaina egokian egonik, jendeak dirua dauka gastatzeko eta enpresak hasten dira funtzionatzen. Enpresek nahi izango dute enplegurik gabeko jendea kontratatzea, defizita tamaina egokia izango denenean. Arazoa da enpresa sektoreak gogor hartzen duela lanposturik gabe egondako jendea kontratatzea. Nahiago luke jadanik lanean dagoen jendea kontratatzea.

Hori dela eta *job guarantee* edo lan bermeko programa daukagu¹², praktikan ere jarri da¹³.

Argentinan esperientzia ederra egon da¹⁴.

Beraz, oso ongi dokumentatutako historia daukagu¹⁵.

Esan da Hanke-k proposaturiko konbertsio taulak garapen suntsitzaileak geldiarazi zituela. Nik horixe esan dut lehenago, hau da, berak konparatu zuela lortutakoa aurreko egoerarekin. **Ez zuen begiratu Argentinari**, bertako konbertsio taula baino lehen eta gero. Beraz, berak esan ahalko luke konbertsio taula hobea zela lehenago egon zena baino, baina **geroago etorri zena askoz hobea zen**¹⁶ haiek **konbertsio taulan inoiz eduki zuten edozein egoera baino**.

Puntua: *modeloa*

W-Mosler:

Zer modelo erabiltzen duzue?

¹² Lan bermeko programaz, ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/langabeziaren-aurka-lan-bermea>.

¹³ Ikus aurreko linka eta, batez ere, Pavlina Tcherneva-ren lanak.

¹⁴ Mosler-ek honela dio, ingelesez: "[Refers to participants in the *Jefes jobs program in Argentina*.] *These were people who were never in the labor force. What they call disadvantaged people. People they never expected to be in the labor force. Indians and people they considered lower class. Many, many women who had already raised their children. Out of 2 million, over 1 million transitioned into private sector jobs within two years. This was unheard of. They had the strongest economy in the world for three or four years till the politics changed. Daniel [Kostzer] left and got a job somewhere else. Somebody took his budget and did something else with it, and the economy started faltering.*"

¹⁵ Ingelesez: "*So, we have good documented history. And all these people were interviewed. University of Missouri (UMKC) people went down to interview them and they asked these people would you rather work or just stay home and get the money. Every one of them said they would rather work. All these people who were supposedly lazy, never would do anything, were taking advantage of the system, they'd all rather work.*"

¹⁶ Daniel Kostzer—ek utzi arte, noski.

Europar Batasunerako (EB) Britainia Handiko modeloa erabili behar duzue. EBko kideak dira baina bere moneta propioa daukate. Zuek enplegu osorako defizitaren tamaina zuzena eduki nahi duzue, ez Britainia Handiak bezala. Britainia Handia legez zuen monetarekin aurrekontua orekatzen saiatzen bazarete, langabezia handia lortuko duzue, Britainia Handiak moduan¹⁷.

Puntua: *defizitak*

Jadanik ikusia, nolabait. Konbertsio taularekiko arazoa da berak ez duela permititzen aurrekontu defizita behar beste handi izatea. Arrazoia hau da: zuen defizitak handitzen saiatzen bazarete, merkatu diziplinara behartuta zaudete eta interes tasa handiagoetara. Beraz, ezin dituzue defizitak behar beste handi erabiltzea, nahiz eta horixe gura. Berehala Grezia bezalako bihurtuko zinatekete. Badaukat lan bat honetaz nire webgunean, *Full Employment, Exchange Rate Policy and Price Stability* izenekoa¹⁸, zeina bulgariaraz itzulita dagoen.

Moneta propioa edukita, zuek Japonia eta AEBak bezalaxe zarete. Japoniak munduko defizitik handiena dauka eta interes tasarik baxuenak, eta haien defizitak ez dira nahiko handiak eta berriki saiatzen egon dira defizitak altxatzeko... Haien hamar urteko bonoa %0,6tan dago, interes tasak zero dira, gobernua erabaki baitzuen horrela ezartzea.

Zuek ezin dituzue interesak irabazi nire bisita txarteletan, ez badut nik erabakitzen hori ordaintzea, ez baduzue arrisku bat hartzen eta txartelak maileguz eman beste bati. Baina badakizue ez dagoela inongo arriskurik haiek niri maileguz emanaz. Nik beti haiek atzera ordaindu ahal ditut, ezta? Nire txartelak dira.

Beraz, irtenbidearen parte bat interes tasa baxuko politikari eustea da, Japoniak bezala, AEBk legez, zeinak Japonian zero inflazioa sortu baitu 20 urteetan, imajina daitezkeen krisi guztietan zehar.

Puntua: *interes tasak eta alokairuak*

W- Mosler:

Interes tasari dagokionez, uste dut aipatutakoa egiten baduzue nahiko sendoa izango dela.

Hemengo alokairuei begiratzen badiezue, gainontzeko Europako alokairuekin parekatuz, iruditzen zait euroarekin bat-bat egiten baduzue moneta balio-irabaztearekin arituko zaretela, ez balio-galerarekin. Baina egokitze bat baldin badago, soilik behin bakarreko egokitzapen bat izango da.

Zuek %7-12ko defizitekin bukatu ahal duzue. Ez du axola. Balioa hileroko 400 lev-eko marjina jarriko da, trantsiziozko lanagatik ordaintzen ari zaretena. Hori izango da lanaren kostu marjinala herrialdean. Horrek emango dizue Missouri Unibertsitaterako buckaroo-ak eman zuen barne egonkortasuna bera.

¹⁷ **Argentinaz**, honela segitzen du Mosler-ek: "And by the way, the peso was very strong at the time. It was an appreciated currency. Now, they did have 9 or 10 percent inflation but it did not interfere with their prosperity. They had high prosperity with prices going up 10 percent a year. And a good part of that was because the currency had fallen a lot more than it should have because of the blood in the street problem. That problem had caused the currency to drop a lot more than it should have. So the price increases were more of a one-time adjustment than actual inflation. Inflation is a continuous, by definition, a continuous, self-sustaining thing that you can't do anything about."

¹⁸ Ikus <http://moslereconomics.com/mandatory-readings/full-employment-and-price-stability/>.

Puntua: *ustelkeria*

W. Mosler:

Ustelkeriari dagokionez, iturri desberdinetatik dator ustelkeria. Bat finantza sektorea da.

Zero interes tasako politikarekin ez duzue behar gobernu-bonorik. Defizit gastua diru saldo gisa jartzen da banku zentrolean, interesik ordaintzen ez duelarik. Banku zentrolean bonak saldo alternatiboak dira. Haiek ez lukete inongo helburu publikorik zerbitzatuko eta beraz ez litzateke egongo inolako arrazoirik haiek eskaintzeko. Hori guztia da zero interes tasako politikaren parte bat, berriz, Japonian bezala. Gobernu-bonoak kenduz, ustelkeria askoren finantzaketa kentzen da.

Langabezia kenduz eta denok lanpostuak edukiz, ustelkeria pilo bat kentzen da.

Ustelkeriaren beste iturri bat maileguz ematea da -estatu-maileguz ematea-, zeina izatez defizit gastua den.

Oro har, estatuaren enpresak ustelkeria iturriak izan daitezke. Pribatizaturiko industria, gobernuarekin lotura handia duena, ustelkeria iturria izan daiteke. Enpresa horiek finantzatzeko, gobernu maileguz beren bidea aurki dezakete jabeengana eta elkaturiko enpresetara iristeko, zeintzuek gero beren lev-ak saltzen baitituzte atzerritar trukerako, moneta behera eramanez. Hortaz, kontu handiaz ibili edozein estatu mailegatzerekin.

Lanpostuetarako, ez dituzue inoiz gehiagorik estatu enpresak edo enpresa pribatuak sostengatu behar. [Irtenbide gisa] Jadanik bermatutako lanpostuak¹⁹ daukazue. Hortaz, langabezia ez da gehiagorik izango lehen izan zen inperatiboa.

Puntua: *bankuak*

W. Mosler:

Banku sektorean hemengo monetako banku gordailu guztiak bermatu nahi dituzue, orain ezin duzuen lortu, sinesgarritasuna ez dutelako. Konbertsio taula batekin, gobernuak bermatutako gordailua baldin badago litekeena da baliorik gabekoa izatea, inongo presioaren menpe barik. Lev-eko gordailuekin, aipaturiko antolamendurekin, gordailuak erabat seguru dira.

Baina banku maileguz emateak izan behar du mugatua. Oso mugatua. Ziur egon behar zarete maileguz ematea soilik permititzen dela helburu publikoari egoki zaionean. Bankuek ezin dute maileguz eman finantza aktiboen kontra. Hori finantza indarra besterik ez da. Ez dago inongo helburu publikorik horretan. Zuek zeuek erabakitzen duzue espezifikoki zer nolako maileguz ematea egoki zaion helburu publikoari. Agian kotxeak erosteko maileguak, etxerako maileguak, horrelakoak, eta hori da zuen bankuek egiteko baimenduta daukaten guztia. Bestela, maileguak ihes egiten du atzerritar truke merkatura eta zuen moneta suntsitu dezake.

Sektore pribatuak beraiek nahi duten edozeini maileguz eman diezaioke. Galtzen badute, beren dirua galtzen dute. Baina bermatutako banku gordailuak? Ez. Hori diru publikoa da.

¹⁹ Lan bermeaz, *job guarantee* delakoaz, ikus goian aipaturiko 12. oharra.